

INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO UDAL PROTOKOLOA

Indarkeria matxistaren aurrean Berriatuko Udalak, jarrera aktiboa izan behar du, salaketa irmoa eta erabatekoa eginez. Protokolo honetan, Indarkeria matxistaren egoera ezberdinei erantzuteko urratsak eta pausuak finkatzen dira. Hau da eguneroko eraso zein eraso larriagoak, bortxaketak, ... edo erailketa matxisten aurrean, eman beharreko pasuen eta erantzun bateratu eta sendoa bultzatzeko eratu da protokoloa.

Indarkeria matxista sistema patriarkalaren adierazpide edo isla bat da, hau da maila gorenean kokatzen dena. Emakume eta gizonen arteko botere harremanak mantentzeko baliabide indartsua da, egiturazkoa eta sistemak funtzionatzeko ezinbesteko tresna. Indarkeria matxista sostengatu, sustatu, babestu eta ahalbidetzen duen egiturazko sistema oso bat dago, non oinarrian ordena soziala dagoen.

Indarkeria matxistak aurpegi ugari ditu; emakumearen bizitzaren gaineko kontrola (kontrol ekonomikoak, fisikoak, sexualak, afektiboak, sozialak, kulturalak), jazarpenak (irainak, bazterkeriak, gutxiesteak) eta bestelako erasoak (prekarietate laborala, enplegurik eza, zaintza lanen karga isila ...). Premiazkoa da barneraturik ditugun indarkeria mota guzti hauekin bukatu eta desagerraraztea.

Berriatuko Udalarentzat, indarkeria matxista salbuespen neurri bat ez den heinean eta egunerokotasunean bizi dugunez, lehen mailako arazo gisa identifikatzen dugu.

Beraz, indarkeria matxista kasuen aurrean Berriatuko Udalak erantzuna antolatzeke garaian emango dituen pausuak jasotzen dira protokolo honetan. Bi egoera bereziko dira, alde batetik erailketa matxista eta bestetik eraso matxista, hau da erailketa izan ezin beste edozein motatako indarkeria matxista mota.

ERAILKETA MATXISTA

- Euskal Herri mailan Edo Bizkaia mailan
 - 1) Udalaren izenena eraso salatuz adierazpen instituzionala argitaratu
 - 2) Berriatuko emakumeen sareak deituriko elkarretaratzearekin bat egingo du Udalak eta kargu politikoek parte hartuko dute.
 - 3) Udaleko balkoian 24 orduz, puntu morea jarriko da.
 - 4) Sare sozialetan:
 - Udaleko web gunea beltzez jarriko da 24orduz
 - Twitter eta facebooken bitartez ekintza salatuko dugu.

- Eskualde mailan

- 1) Udalaren izenean eraso salatuz adierazpen instituzionala argitaratu
- 2) Gertaera gertaturiko herrian deituriko elkarretaratzearekin bat egin eta udaleko kargu politikoek parte hartu.
- 3) Udaleko balkoian 24 orduz, puntu morea jarriko da.
- 4) Sare sozialetan:
 - Udaleko web gunea beltzez jarriko da 24orduz
 - Twitter eta facebooken bitartez ekintza salatuko da

- Herrian

- 1) Herrian gertaturiko eraso baten berri baldin badugu, herriko mugimendu feministarekin dugun informazioa kontrastatuko dugu eta ondoren elkarlanean arituko gara.
- 2) Udal barena gaiaz arduratuko den pertsona erreferentea izendatuko da.
- 3) Erreferente honek, herriaren eta hedabideen aurrean hitz egingo du, non informazio zehatza eta egokia izatea bermatuko da. Udalaren partetik ez da bat bateko erantzunik emango jasotako informazioa egiaztatu arte.
- 4) Udala gainerako erakundeekin koordinatu eta emakumearen inguru hurbilarekin harremanetan jarriko da, eskura izan ditzakeen baliabideen berri eman eta hauek eskuratzeko orduan bidea erraztu ahal izateko; laguntza judiziala, psikologikoa, laguntza ekonomikoa, ostatu zerbitzua, ...
- 5) Eraso salatuz, udalak adierazpen instituzionala landu eta argitaratu
- 6) Udalbatza berezia, adierazpen instituzionala onartzeko
- 7) Berriatuko emakumeen sareak deituriko elkarretaratzearekin bat egingo du Udalak eta kargu politikoek parte hartuko dute
- 8) Udaleko balkoian 24 orduz, puntu morea jarriko da.
- 9) komunikabideetan
 - Adierazpen instituzionala hurbileko hedabideetara bidaliko da eta sare sozialetara igo.
 - Udalaren webgunean beltzez jarriko da eta puntu morea web –aren erdigunean
 - twitter eta facebooken bidez eraso salatuko da.

HERRI MAILAN ERASO MATXISTEN AURREAN

- 1) Berriatuko emakumeen sarearekin informazioa kontrastatu
- 2) Emakumeari eta bere menpe dauden senideei samindura eta elkartasuna adierazi.
- 3) Udala gainerako erakundeekin koordinatu eta emakumearen inguru hurbilarekin harremanetan jarriko da, eskura izan ditzakeen baliabideen berri eman eta hauek eskuratzeko orduan bidea erraztu ahal izateko; laguntza judiziala, psikologikoa, laguntza ekonomikoa, ostatu zerbitzua, ...
- 4) Adierazpen instituzionala landu eta argitaratu
- 5) Emakumeen sareak deituriko mobilizazioarekin bat egin eta udal kargu politikoek ere mobilizazioetan parte hartu
- 6) Udaleko balkoian 24 orduz, puntu morea jarri
- 7) Sare sozialak:
 - Udaleko web gunea beltzez jarriko da 24orduz
 - Twitter eta facebooken bitartez ekintza salatuko da